



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

## **Bizkaiko ahaldu nagusiaren hitzaldia, Politika Orokorri buruzko osoko bilkura**

(Gernika, 2021eko irailaren 29a)

Hasteko modu ona da orain urtebete baino hobeto gaudela egiaztatzea. Ea datorren urtean are hobeto gauden. Legegintzaldi honen erdialdea igaro berri dugu, eta, honako hau Covid-19aren pandemiaren legealdi gisa gogoratuko dugu, baina, batez ere gogoratuko dugu geure bizitzetan izandako inpaktu izugarriagatik, geure bizimoduari emandako irauliagatik, gizartea muga-mugan jartzeagatik, erabateko ziurgabetasuna eragiteagatik eta hegan zihoan ekonomia bat bat-batean geldiarazteagatik. Hori guztia gogoratuko dugu.

Gogoratuko dugun hori guztia gure lana izan da, azken urte eta erdian egin dugun lana: egoera hori kudeatzea, pandemia kudeatzea. Berben indarrak jabetzea merezi duela uste dut: pandemia bat kudeatu dugu, hondamendi bat. Inoiz ikusi ez duguna kudeatu dugu, inoiz bizi izan ez duguna, inoiz jasan ez duguna. Ia denak bezala, argibide-eskiliburu barik etorritako hondamendia. Bizkaiko Foru Aldundiak artez eta oker egin du bere lana, eta erabakiak hartu ditu, urgentziari premia erantzunez, premia handiena izan duenarengandik oso hurren. Guretzat hori berori izan da pandemia: ikusten ez den lan handia, gertutasun handia, ziurgabetasun handia eta sufrimendu handia.

Uste dut hondamendiak ez direla inola ere erabili behar. Beraz, hementxe utziko dut gai hau. Gainera, eta batez ere kasu hauetan, hobe da besteek norberari buruz berba egitea, nor bere buruari buruz berba egitea baino. Horregeatik aipatuko ditut Bizkaiko Foru Aldundiak oraindik guztiz aldeni ez den pandemia honetan egindako lanari buruzko bi iritzi eta datu bat. Bi iritzi horiek oso baliagarriak dira datozen tokitik datozelako. Lehena, eta niretzat oso baliotsua, gure adinekoen eta haien familien iritzia, gure egoitzetan, gure zahar-etxeetan egunez egun bizi direnen iritzia, Covid-19a hor barruan igaro dutenena, judizio-elementu gehien dituztenena eta gehien sufritu dutenena. Gure adinekoek eta haien familiek 10etik 8,06rekin kalifikatu dute Bizkaiko Foru Aldundiko egoitzek eskaintzen duten zerbitzua. Eta horretan pandemia ere sartu da. Zahar-etxeetan Covid-19aren inguruan egindako kudeaketari dagokionez, 10etik 7,18 puntu eman dituzte.

Bigarren iritzia ere oso kualifikatua da: Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza. Fiskaltza berak, bide batez, Aldundi honen aurka aurkeztutako bi salaketak artxibatu ditu. Berbarik berba aipatu behar. 2020ko Memoriaren 70. orrialdea eta hurrengoak, norbaitek aipamena alderatu nahi badu. *"Foru-erakundeek, baita Osasun Sailak ere, birusa egoiliarren artean hedatzeko egin duten ahalegina, ahal den neurrian, oso handia eta apartekoa izan da baliabide pertsonal eta materialei dagokienez, eta hala adierazten da bidali zizkiguten txostenetan, gertatu diren heriotzak sentituz betiere".* Fiskaltzaren ustez, ahalegin handia eta apartekoa da, eta badakigu erakunde horrek ez duena ezer oparitzen. Bai, halaxe da. Nire eskerrona eta balorazioa bi iritziengatik, Bizkaiko Foru Aldundi gisa izugarri pozten baikaituzte eta justizia egiten baitiote talde honek aurrera ateratako lan eskergari. Dena eman duen taldea izan da. Den-dena.

Eta orain datuari ekingo diot, hori ere garrantzitsua da-eta. Batez ere, gaiaren jakinaren gainean egonda berba egiteko eta iritzia emateko. Pandemiaren okerrera milaka bizitzaren galera izan da.



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

Gaur-gaurkoz, 2019an baino % 12,19 heriotza gehiago izan dira Bizkaian 2020an. Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, Estatuan izandako gehiegizko heriotza-tasa % 19,98koa da, Bizkaian baino ia zortzi puntu handiagoa. Zenbait autonomia erkidegotan (Madril, adibidez) gehiegizko kopuru hori % 42,98koa da. Datuak benetako dimentsioan ulertzen dira soilik gisa bereko edo antzeko zerbaitekin konparatu ahal direnean. Datu objektiboak eta ofizialak dira, testuingurua dute eta bizi izandako dramaren dimentsioa hobeto ulertzen laguntzen dute.

Eta orain bai, pandemiari buruzko nire azken aipamena. 135.085 bizkaitarrek izan dute gaixotasuna. Eskerrak eman nahi dizkiet hilabeteotan laguntzeko eta jagoteko buru-belarri jardun duten guztiei. Eta bihotz-bihotzez gogoratu nahi ditut gure artean ez daudenak, Covid-19ak ostutako 2.581 pertsona horiek. Goian begoz.

Baikortasun errealistara itzuli gura dut. Txertaketa masiboak eta gainerako neurriek funtzionatu dute. Aurreikuspen ekonomiko guztiak baikorrak dira. Susperraldi ekonomikoan sartu gara bete-betean, hazkunde-fasean eta enplegua sortzeko fasean. Adierazle positiboen zerrenda handia aipa nezake, oso positiboak kasu askotan, baina ez dut egingo. Gakoa beste bat da: zelan lagunduko diogun susperraldi horri, zer ekarpen egingo dugun batzuek eta besteok denbora-tarte honetan, zer egingo dugun hemen gaudenok. Eta, era berean, zer egin dugun eta zer egin ez dugun.

Gaur ere egun aproposa da gu erretratatzeko. Gure erretratutik hasiko naiz. Selfi bat egin eta uneko argakia partekatuko dugu, garai honen laburpen gisa. 24 hilabete luze hauetan, hartutako konpromisoen % 35 osatu dugu edo gauzatze aurreratuan dugu. Gobernu programan abiarazitako proiektuen % 49 gauzatze bidean dugu, eta bi urte ditugu diseinuaren fasean edo hasi gabe dagoen % 16ari aurre egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundia berba betetzen duen diputazioa da, esaten duena egiten duena, konpromisoak betetzen dituena eta legegintzaldiko leloa betetzen duena: Bizkaia egiten. Egiten. Bizkaiko Foru Aldundia bizi-kalitatea, ekonomia eta enplegua hobetzeko proiektuen sinonimoa da. Proiektu nagusien egoeraren errebaso zehatza egingo dut, batez ere Batzar Nagusietan konprometitukoena. Duela urtebete, kinka larri-larrian egon arren, proiektu batzuk konprometitu genituen hemen, eta aurrera egiteko konpromiso osoa hartu genuen. Aurrera. Beti aurrera. Aurrera jarraitzeko bokazio horrek mugiarazten gaitu. Beti.

Duela urtebete, gure gizarte-ekintza hobetzeaz eta modernizazteaz hitz egin genuen hemen, pertsonak etxean edo nahi duten lekuan zahartzeko eta zaintzeko erronkaz; duela astebete, iraupen luzeko zaintza-plana aurkeztu genuen, eta plan horrek laguntza behar duten Bizkaiko pertsona askoren arreta eta bizi-kalitatea hobetzen du, batez ere gure edadekoena. Gaur egun, plan hori errealitatea da, eta asmo handiko lau jardueraz idu martxan. Lehenengo, EtxeTIC, eguneko zentroen eta erabiltzaileak monitorizatzeko zentroen eredu berria. Teknologia eta hurbiltasuna uztartzen dituen zentro-eredu berria, pertsonak etxean jarraitzeko duten nahia indartzeko eta bermatzeko. Helburu argi bat izanik: EtxeTIC zentroek etxean zaintzak dituzten mendeko pertsonen erdiei estaldura ematea 2023rako. Lehenengo zentro operatiboak Bilbon, Zallan, Etxebarrin, Mungian eta Basaurin izango dira. Bigarrena, etxearen gero eta antz handiagoa izango duten egoitzak. 2023ari begira, foru-sareko 2.500 egoitza-plazak etxearen antza izateko konpromisoa



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

hartu dugu, gehienez 25 pertsonako bizikidetz-unitate bihurtuz, giza eskala izango duten zahar-etxeetan. Arian ariko prozesua, dagoeneko martxan dagoena. Hirugarren lerroa: prestakuntza espezializatua eta Osasun sistemarekin lehentasunezko solaskidetz duten eskualdeko zentroak eta erreferentziazko taldeak. Pertsona horientzako euskarri mediko espezializatua hobetu nahi dugu. Lehendabiziko adibide erreal gisa, Osakidetzarekin eta Santamarinako ospitalearekin dugun protokoloa da, Birjinetxe Bilboko zahar-etxeetarako erreferentziazko eskualde-zentro bihur dadin. Eta hobeto zaintzeko laugarren ildoak: gure zaharrak jagoten dituzten profesionalen prestakuntza hobetzeko asmo handiko proiektua. 5,4 milioiko inbertsioa prestakuntza eta kontratazioa hobetzeko, datozen hamarkadetan premia handia izango duen sektore batean. Ikusi eta ikasi.

Gehiago. Duela urtebete, belaunaldi berriko banda zabala Bizkaiko azken txokora zabaltzeaz hitz egin genuen hemen. Lehenengo fase operatiboa Arratia, Mungialdea eta Enkarterrin dago, bai eta Uribe Kosta, Busturialde eta Durangaldeko zenbait zonetan ere. Eskualde horietako 50 udalerritako 4.243 etxebizitzatan sakabanatuta 1. fasearen barruan, eta 3.948 etxebizitzatan 2. faseari begira. Guztira, 8.191 etxebizitza. Gaur egun, bizkaitar askok lehen ez zuten Interneterako konexioa dute. Eskuragarri dauden azken datuen berri eman nahi dizuet: 144 etxebizitza sakabanatu banda zabalean entxufatuak, 2.686 obra-fasean, 920 diseinuan eta 493 baimen ofizialen zain. Gainera, Espainiako Gobernuarekin hitz egiten ari gara, gure hedapen-erritmoari eusten jarraitu ahal izateko. Exekutibo zentralak jakinarazi du banda zabalaren hedapenaren bigarren faseaz arduratuko dela Europako funtsen diruarekin, baina inbertsio eta irismen planak gureak baino txikiagoak dira; beraz, espero dut hedapen horri laguntzen eta abiada bizian jartzen utziko digula.

Duela urtebete Urduliz Eskola 42ari buruz ere hitz egin genuen. Gaur egun, trebetasun digitalen arloko prestakuntza-eskola disruptiboenak enpresek behar dituzten eta trantsizio digitala eskatzen duten profesionalak prestatzen ditu. Ia ehun pertsona gaitzen ari dira trebetasun digitaletan, eta, diotenez, oraindik ere badira plaza batzuk erabateko enplegua duen sektorean. Gainera, lanean dihardugu Eskola 42 gure enpresa txiki eta ertainekin konektatzeko.

Duela urtebete hitz egin genuen Eup! atariaz. Gaur egun, merkataritzaren atari hori beste errealtate bat da. Bizkai osoko tokian tokiko 344 saltoki eta 7.800 produktu desberdin salgai. Pertsiana digital hau altxatu dugu, hitzetatik merkatura pasatu gara, baina denbora gehiago behar dugu. Proiektuak denbora gehiago behar du heldutasuna lortzeko, hazteko eta sendotzeko. Eup!-ek behar du, bai eta hain hiperlehiakorra den merkatu batera zuzendutako edozein proiektuk ere. Adibidez, Internet bidezko salmentaren lider orokorrak hamarkada bat behar izan du bere merkatu-kuota bikoizteko. Hemen ere ez dago ez bidezidorrik, ez lasterbiderik. Datozen Gabonak beste mugarri garrantzitsu bat izango dira Eup!-rentzat. Sektorearentzat erabakigarriak diren data horietan, tokiko beste 327 saltokik bat egingo dute ekimenarekin, eta, horrela, eskaintza eta aukera gehiago gehituko zaizkio Bizkaiko erakusleho digital komun honi.

Orduan, Bizkaia dorreaz ere hitz egin genuen, ekintzailtzako nazioarteko zentroaz. Ez dut zortzi hilabeteko atzerapena ezkutatu nahi. Urtarrilean hasiko dira espazioa atontzeko lanak eta ekainean amaituko dira. Gure aurreikuspena da datorren urteko irailean dorrearen argia piztea, eta munduko 140 ekintzailtza-gunetara konektatzea. Bien bitartean, proiektua dorretik kanpo ari da



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

aurrera egiten, eta trazio-enpresen, enpresa txiki eta ertainen eta startup-en sarea ehuntzen jarraitzen dugu. Bizkaiko ekosistemako 50 enpresa eta eragile baino gehiagorekin berba egiten jarraitzen dugu, proiektuan izango duten parte-hartzea zehazteko. Proiektua Bizkaiko itsasargia izango da, Biscay Startup Bay estrategiaren abiaburua. Estrategia hori ezinbestekoa da lurralde honen orainerako eta etorkizunerako, eta gure energia-potentzial zalantzaezina ere indartu nahi du, eta gure enpresei nahitaezko energia-trantsizioan lagundu.

Trantsizio saihestezina da, ezin du gehiago itxaron, eta horretarako lan egiten dugu, batez ere erreferentzia garen bi esparruetan: energia elektriko eta sare adimendunen zentroan, eta hidrogenoaren euskal igarobidean. Trantsizio energetiko horren motorra Bizkaian eta Euskadin Energy Intelligence Center (EIC) izango da. Joan den otsailaren 15ean jarri genuen egoitza-erakinaren lehen harria eta 2022ko irailean irekiko ditu ateak. Sarbideak amaituta daude jadanik, eta puntako enpresen hamaika eskaera ditugu, EICn kokatu eta lagundu nahi dutenak.

Datorren astean, hilaren 5ean, sare adimendunen zentroaren instalazioak inauguratuko ditugu. Iberdrolarekin, munduko hirugarren enpresa elektrikoarekin eta gure traktore nagusiarekin partekatutako proiektua. Lankidetzarako, ekintzailtzarako eta aukera partekaturako gune bat, gure enpresa elektriko guztiekin batera. Sare adimendunen zentro honetan bildutako 44 enpresa, lankidetzaren publiko-pribatuaren beste adibide bat, errealitate bihurtutako beste proiektu bat.

Askotan hitz egin dugu hemen Nagusi Intelligence Center (NIC) delakoaz ere, zahartzearen erreferente bihurtzeko egin dugun apustuaz, errealitate demografiko horren inguruan industria-sektore bat egituratzeko. Hitz gehiagorik ez, bakar-bakarrik jakinaraziko dizuet NIC egun gutxi barru irekiko dela, urriaren 13an, Urduliz dorrean, jarduerak aurrera eramanez bere jarduketa-eremu gehienetan. Prestakuntza-lana hasiko da Mondragon Unibertsitateko Silver Economy-rako ekintzailtza teknologikoaren master batekin, eta, hala, BEAZen eskutik ekintzailtza sortzeko erronkari ekingo zaio, sektoreko enpresa traktoreekin partekatutako lanari esker, betiere ekonomia- eta enplegu-aukera berriak pizteko, eta aurrera egingo dugu datuen inguruko proiektu ukigarri baten definizioan. Urriaren 13an, NICek pertsiana altxatuko du Urduliz dorrean.

Duela urtebete, Supersur eta itsasadarraren azpiko tunelaren bigarren fasea osatzen duten Bizkaiko saihestezina handiaz ere hitz egin genuen. Gaur egun, biak daude apur bat hurrago, batez ere lehenengoa. Berretsi egiten dut 2023ko udaberrirako amaitzeko konpromisoa, beste berritasun batzuk gehituta: Bizkaiko "free-flow" bidesaria duen lehendabiziko bidea izango da, gelditu behar ez den bidesaria. Tunelaren ganean, fase ikusezin baina ezinbesteko horretan gaude, hain zuzen ingeniari-taldeen azterketan, obraren jarraibideen eskuliburuan. Epean arabera egiten du aurrera lanak, eta uste dut horixe dela esan dezakegun gauzarik onena.

Aurrera ere, epe barruan, Zallako Enkarterriko suhiltzaile-etxe berria, eta dagoeneko martxan dago. 2022ko martxorako Arratzukoa egongo da, eta urte hau amaitu baino lehen bukatuko dituzte lanak. Suteak itzaltzeko zerbitzuarekin jarraituz, 7,1 milioi euro inbertitu ditugu ibilgailuen laurdena berritzeko.



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

Duela urtebete Lezamako Bide Zaharrari buruz hitz egin genuen, Bilbo eta Txorierriko pasealeku natural bihurtzeko gure apustuari buruz. Gaur akordio bat dugu Espainiako Gobernuarekin, tunelaren titularrarekin. Bizkaiko Foru Aldundiak datorren urteko lehen hiruhilekorako bukatuko du proiektua eta, ondoren, Espainiako Gobernuak eraikuntza lanei ekingo die. Hau ere eskaera historikoa, errealitatea izatetik hurrago dagoena.

Bizkaian bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatzeko estrategia bat zabaltzeaz ere ari gara, gizarte honi mugitzeko eta bizitzeko alternatiba berri bat eskaintzeko. Gaur egun, *Bizi* estrategia pedalka doa, zarata handirik egin gabe, bizikletei dagokien bezala. Talde-lan baten emaitza da: administrazioa, unibertsitatea, enpresak... Beste behin lankidetzak publiko-pribatua, eta berriro ere Bizkaiak munduarekin duen lotura. 360 graduko proiektuak hedatzen dituen estrategia. Azpiegiturak sustatuko dira, kasu baterako edukiera handiko bidegorriak edo Amorebieta-Durangoko bizipistak (horien eraikuntza-lanak datorren urriaren amaieran hasiko dira), edo itsasadarraren bulebarra (Getxo eta Bilbo arteko eskuinaldeko udalerriz guztiak lotuko ditu); azken horren lan fisikoak Nerbioi gaineko oinezkoentzako zubiarekin hasiko dira hamabi hilabeteko epean gutxi gorabehera, 2022ko azaroan.

BIZIk prestakuntza ere bultzatzen du, Durangoko maristekin eta Orbearekin batera martxan dagoen proiektu bati esker, sentsibilizazio-jarduerak egiten ditu ikastola eta ikastetxeetan, Getxo, Leioa eta Zornotzarekin lanean ari den aholkularitza-zerbitzua ere badu, udalerriz horiek ere bizikletaren sustapenean murgilduta baitaude mugikortasun-elementu gisa; era berean, eguneroko erabilerarako inbertsio izugarri praktikoak abiarazi ditu, esate baterako bizikletak konpontzeko, mantentzeko eta garbitzeko estazioak. Eta beste bi elementu berri, ezinbestekoak biak bizikletaren aldeko estrategia arrakastatsua izan dadin; gero aipatuko ditut, proiektu berrien atalean.

Duela urtebete ere hitz egin genuen Omako basoaren gainean. Omako baso margotuaren amaiera izango zela zirudien, baina Bizkaiko Foru Aldundiak basoa berpiztu du. Joan den ostiralean iragarri genuen kokaleku berria, obra bera erakusteko oihala berria. Kokapen bera, udalerriz bera eta azpiegitura berberak. Ibarrolaren baso magiko margotua bera. Hori ere errealitatea da.

Arte Ederren Museoa handitzeko lanaz hitz egin genuen egun hartan. Eta zabalkuntza abian da, Sir Norman Foster buru dela. Baita Euskal Museoa handitzeko lanak ere. "Bizkaikoa" sareko gainerako museoak zaintzea ahaztu gabe. Bizkaiko Foru Aldundia ere kultura, gure ondare eta euskararen ondo-ondoan dago. Miren Agur Meabek klase ederra eman digu. Kirmenek bezala, Gatibuk eta Belakok bezala eta, zorionez, beste hainbat taldek bezala. Euskaraz bizi, hitz egin, kantatu eta sariak irabazi behar dira munduan. Bizkaieraz ere bai. Ez da bakarrik dirua inbertitzeaz hitz egitea, hori ere bai. Jarrera ere bada, norberarengandik hasten dena. Administrazioari, elkartei, federazioei, enpresei, alderdiei, gizaritari eskatzen diodan jarrera. Hori garenaren parte da, baina bakar-bakarrik da eta izango da erabiltzen badugu, hitz egiten badugu.

Bai hitz egiten dugu, baina egin ere egiten dugu. Esaten duguna egiten dugu. Garrantzitsuan zentratutako Aldundia gara, gertukoak, proiektuak dituenak, hitza betetzen duena eta akatsak ere egiten dituenak, noski. Eta onartzen ditugu. 2020ko Errenta herritarren zerbitzura egin beharreko aurrerapauso gisa hartu genuen. Lehen, herritarren erdiek bakarrik zuten deklarazio-proposamen



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

bat egiteko aukera. Guk zerbitzu hori pertsona guztiei zabaldu nahi genien; denek beren deklarazioa egin izatea nahi genuen. Guztiei, ez erdiari bakarrik, hori ere aukera-berdintasuna bultzatzea baita eta Administrazioa eta herritarren zerbitzua modernizatzea. Erraza izango zela esan genuen.... eta ez zen izan, hasieran ez behintzat. Horrela da: aurreikusitakoa baino gehiago kostatu zaigu eta nahi baino eragozpen eta buruhauste gehiago sortu ditugu.

Bi errealitateak onartuz, autokritika sakona egin, egin dugun bezala, herritarrei barkamena eskatuz, egin dugun bezala, aurrerapauso handia ere egin dugulakoan nago; hori eztabaidaezina da. 992.376 aitorpen proposamen egin ditugu, eta horietatik 636.264 aitorpen aurkeztu dira, 2019ko Errentan baino 56.524 gehiago. Hamarretik zazpi itzultzeko, datu ekonomikoak aldatu gabe onartutako hamarretik zazpi. 541.956 telefono-arreta eskaini ditugu, 8.741 egunero. Aurrez aurreko 6.960 arreta, 112 egunero. Eta 1.180 kexa jaso ditugu.

Egia da gaizki hasi ginela, baina egia da askoz hobeto amaitu dugula. Bizkaiko Foru Aldundia garen aldetik, 2021eko Errenta kanpaina arrakastatsua izango dela bermatzea da gure konpromisoa, eta horretarako lanean ari gara duela hilabete askotatik: ondo, oso ondo eta erraz egiteko. Oraingoan bai..

Errentatik Batuzera, zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko funtsezko tresna. 2022ko urtarrilaren 1ean jarri genuen indarrean, baina proposamen bat helaraziko diegu Batzar hauei, ezarpena bi urtez atzeratzeko. Proiektu hori guztia eta bere ezarpen-egutegia pandemiaren aurretik diseinatu zen. Ezin dugu beste alde batera begiratu eta errealitatea ahaztu: Covid-19aren ondorio ekonomiko negatiboak orokorrak izan dira. Batuz-ek aldaketa teknologikoak eta inbertsioa eskatzen dizkie zergadun askori. Haiek eta guk denbora gehiago behar dugu, koiuntura zena berriro izan dadin, aldaketa horri berme osoz ekin diezaiozun, eta horregatik bi urte gehiagoko epea. 2022ko urtarrilean sistema aplikatzeko borondatezko epea irekiko dugu, enpresa eta zergadun batzuk prestatuta daudelako. Boluntario horiek guztiek zerga pizgarria izango dute, % 15eko murrizketa PFEZn edo Sozietateen gaineko Zergan, 2022ko eta 2023ko ekitaldietan.

Egiten ari garen gauza asko aipatu ditugu, eta laster aipatuko ditut egin nahi ditugun beste batzuk. Onartu behar dut, halaber, proiektu batzuk ez direla garaiz iritsiko eta legegintzaldi honetatik harago joango garela. Adibidez, Durangaldean eta Busturialdean trenaren inguruko mugikortasun-pilotuez ari naiz. Eusko Jaurlaritzarekin batera egiten dugu lan bere definizioan, baina errealitatea egoskorra da. Alde batetik, pandemiaren eragin sakona garraio publikoan, defizit ekonomiko oso serioarekin. Datu bat: erakunde honek bi urte hauetan bere gain hartu dituen defizitak 35 milioi euro ingurukoak dira, dirulaguntzan jasotako 13 milioiak zenbatu gabe. Eta hori guztia Covid-19aren aurreko etapara iristen ez den eskaera bat izanik. Faktore horiek, epe laburrean, asko zailtzen dituzte bi proiektuak bideragarri egiteko behar diren inbertsioak. Lanean jarraitzen dugu, baina horizontea luzatu egin da.

Gauza bera gertatzen zaigu Bilbo efektua itsasadar osora hedatzeko eginkizunarekin. Ustekabeko pandemiak denbora eta dedikazioa lapurtu dizkigu beste proiektu batzuetan. Norabide horretan urratsak egin ditugu, eta itsasadarraren bulebarrak ari naiz, udalerrri guztiak modu jasangarrian harilkatuko dituen arteria, bi ertzak gehiago hurbilduko dituen, itsasadarraren azpiko tunelak





*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

etorkizunean egingo duen bezala, metropolitik trafikoak ateraz, jasangarriago, seguruago bihurtuz. Espero dut datozen hilabeteetan Bizkaiko metropoliak eskaintzen dituen aukera guztiak bideratuko dituen proiektu bat bideratzea. Bizkairako funtsezko proiektua, aukera-berdintasunerako. Hain da garrantzitsua, ezen ondo baino ezin baita egin. Hobe berandu eta ongi, laster eta txarto baino. Lurralde honen etorkizunaz ari gara, aparkatuta ez dagoen baina atzerapena duen proiektuen egitasmo batez.

Atzeratuta gabilta Lekeitioko labar-artearen zentroaren definizioan. Baita Bizkaia Gara zabaltzeko zereginean ere, Bizkaiko boluntarioen sarean, hain zuzen. Atzerapenak aipatzen jarraituz, baina beste era eta arlo batekoak, AHTari buruzko aipamena egin beharrean nago. Atzerapen etengabeak justifikaezinak dira dagoeneko. Atzerapen horiek lehiakortasuna eta berdintasuna galdu eragiten digute European. Nire ustez, obra guztia kudeatzeko mandatu bat eman beharko litzaieke euskal erakundeei, horren barruan geltokien eraikuntza sartuz. Eta sortzen diren obra, espazio eta aprobetxamendu guztien kudeaketa hemendik egitea. Uste dut hori dela proiektu hau ixteko berme bakarra. Eta kontuak kitatuko ditugu kupoaren bidez Estatuarekin. Egoera honek ez du itzulinguru gehiagorik onartzen.

Tira, hauxe da bizitza bera: ondo ateratzen diren gauzak, txarto ateratzen diren gauzak eta korapilatzen diren gauzak. Onaren edo txarraren gainera, asmatutakoen edo akatsen gainera, gauza batekin geratzen naiz: Bizkaiak martxan jarraitzen du, abiada bizian, beti aurrera. Badakigu nora goazen eta nondik abiatzen garen. Uste dut non gauden eta zelan gauden jakitea oinarrizkoa dela. Gizarte aurreratua eta indartsua gara, arazoak dituen, zailtasunak dituen, erronkak dituen, baina aurreratua. Bizi-kalitate eta zerbitzu publiko handikoa. Lan handia eta ondo egin duen gizartea. Eta, batez ere, bat gara eta bat izan behar dugu. Niretzat hori funtsezkoa da, bazterrezina: gizarte bat gara. Bat. Pentsamendu desberdinetakoak, jakina, baina bat. Etorkizunerako berme kolektibo bakarra zera da: bat izaten jarraitzea, alegia, denok elkarrekin aurrera egiten duen bide nagusi horren parte izatea, betiere arlo publikotik ziurtatuta inor ez dela atzean geratzen. Bene-benetan uste dut hori garelako: muturrik gabeko bide hori, edo gutxienez ertz zorrotzik gabekoa.

Hortik abiatu eta bide horretatik zehar segitzen dugu. Amaiera bako bidea, beti egongo baita zer eginga pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko. Beti egongo da zer eginga Bizkaia gehiago hobetzeko. Beti egongo dira proiektu berriak proposatzeko, ametsak betetzeko, erronkak lortzeko, akatsak zuzentzeko. Bizkaia ez dago geldirik. Inoiz ez.

Proiektuak ixten ari gara eta proiektu berriak zabaldu behar ditugu. Proiektu ilusionagarriak, elkarrekin aurrera egiten lagunduko digutenak, hobeak izaten, Bizkaian bizitzeaz harro sentitzea ahalbidetuko digutenak, eta garen bide nagusi hori, osatzen dugun gizarte bakarra, blindatuko dutenak. Bizkaiko Foru Aldundiak baditu proiektu horiek. Hobeto esanda, gizarte honexek ditu proiektu horiek, Bizkaiko Foru Aldundiaren proiektuak entzute aktibotik sortzen baitira, gure gizon eta emakumeei arretaz entzutetik.

Gaur hemen aurkeztu gura ditut datozen urteetan geure lana, baliabideak eta lehentasunak beteko dituzten proiektuak. Bizkaia are hobetuz egingo duten proiektuak. Denbora luzez eskatutako



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

proiektuak, batzuk, eta guztiz berriak, beste batzuk. Eta Aldundiak horiek guztiak benetan egiteko konpromisoa hartzen du. Pertsonetarik hasi gara, iraupen luzeko zaintza-planetik, baina gehiago egongo dira, eta betiere pertsonak hartzaile, helburutzat hartuta. Adibidez, Leioako Avanzada erabat estaltzea. Herria zatitzen duen lubakia ezabatu eta eten hori pertsonen gozamenerako espazio berri bihurtuko dugu. Aldundiak irtenbidea emango dion eskaera historikoa. Proiektua datorren urteko azarorako, 2022ko azarorako, egongo da prest. Berehala lizitatu eta obrak hasiko dira, 60 milioi euro inguruko hasierako inbertsioa eginda.

Sollubeko portua hobetzeko, irisgarritasuna hobetzeko eta Bermeoko eta eskualdeko aukerak hobetzeko konpromisoa ere hartu dugu. Segurtasun handiagoa, erosotasun handiagoa eta irisgarritasun hobea. Ez diegu tunelei uko egiten, ez, baina, ezta ere Bidebietaren eta gainaren arteko errepidea hobetzeari. Ia hiru urte kalkulaten ditugu Sollube aldatuko duen proiektu konplexu bat idazteko. Hiru urte, urri honen lehen hamabostaldian kontatzen hasiko direnak, esleipena egiten denetik. Epeek eragotzi egingo digute obra legealdi honetan hastea, baina dena prest utziko dugu hurrengo legegintzaldirako, lana gauzatzeko 35 milioi euro erreserbatuta.

Ahaldu nagusia baikorra da berez, eta metroa Galdakao eta Usansoloko ospitalearekiko konexioaren gaian ere bai. Jakin badakigu zailtasun handiak dituguna, batez ere inbertsio handia eskatzen duelako, 350 milioi euro, baina ez dugu amore ematen. Hori inoiz ez. Ate guztiak jotzen jarraitzen dugu, gaitasuna duten eragile guztiekin hitz egiten jarraitzen dugu. Bizkaiko Foru Aldundiak lanean dihardu metroa Galdakaora eta Usansoloko ospitalera eroateko. Gaur egun eskuartearen darabildan informazioarekin ez dut baztertzeko errealitate bihurtzea. Ziur? Ez. Ezinezkoa? Gaur-gaurkoz ere ez.

Trena, bizikleta eta zapatila: Bizkairako nahi dugun mugikortasunaren ardatzak. Trenaren gainean egin dut berba, metroaren gainean. Orain bizikletara igo gara. Urtebete daroagu pedalei eragiten, beste modu batean mugitzeko, beste modu batean bizitzeko aukera eskaintzeko: desberdina, jasagarria, osasungarria. Beste abiadura batean. Pedalkada berrien garaia da, bide horretan aurrera egiteko funtsezkoak diren bi proiektuak. Lehenengo, Aldundiaren eta Bizkaiko udalen baterako proiektua. Bizikleta elektrikoaren lurralde-sistema partekatua sustatuko dugu, hainbat udalerriren artean erabil daitekeena eta beste garraio publikoko sistema batzuk osatuko dituena, berbarako Metroa, trena edo Bizkaibus, Barik txartelarekin aktibatuko dena eta bizikleta gure eguneroko mugikortasun-errutinan sartzen lagunduko duena. Sistema horrek zentzu eta potentzial osoa hartuko du ahalmen handiko bidegorri nagusiak amaitzen ditugunean, 2024an.

Ezin gara traba. Apur-apurka joango gara, fasez fase. Proiektu honek masa kritikoa eta masa kritiko horren arteko hurbiltasuna behar ditu, eta hori Bilbo Handiak, itsasadarraren ibarrek eta Bilbok berak ematen dute. Proiektua definitzen ari gara, udalerriekin batera lan egiten, elkarrekin errazagoa delako eta proiektu honek zentzua duelako elkarrekin egiten badugu bakarrik.

Bigarren proiektua bizikletak gordetzeko aparkaleku seguruak jartzeko konpromisoa da. Testatutako aparkalekuak, Bredako Unibertsitateak jasotako azterketatik eta esperientziatik ateratakoak: auzoko aparkalekuak, etxe askotako gabeziak betetzen dituzten udaletako lonjak edo espazio hutsak aprobetxatuz, bizileku horietariko askok ez baitu bizikleta gordetzeko leku egoki eta





*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

erosorik; era berean, Metro, Euskotren edo Bizkaibuseko geltokietarako aparkaleku espezifikoak. Getxon, Leioan, Portugaleten, Zornotzan eta Durangon izango dira lehen aparkaleku pilotuak.

Oraindik bizikletaren gainean, legealdiko proiektu handienetako bat aipatu nahi dut. Legealdi honetakoa, hurrengokoa eta askoz gehiagoetakoa. Gauza handi bezain ahaztezina, belaunaldi belaunaldi gogoratuko dena. Frantziako Tourraz ari naiz, 2023ko Frantziako Tourreko Grand Départ-az, edizio horretako lehen hiru etapaz. Munduko lasterketarik onena Euskaditik irtengo da, Bizkaitik, Bilbotik. Ikuskizun zoragarri baten zain gaude. Badakit Frantziako lasterketak dagoeneko korritu duela Euskadi, baina ez orain duen dimentsio eta oihartzuna izanik. Milioika begik izango ditugu begira. Aukera bikaina dugu Bizkaia mundura konektatzeko, zer garen erakusteko, gure historia kontatzeko, gure balioak kutsatzeko. Hainbeste dago bizitzeko, ze oso labur egingo zaigu 2023an baino ez bizitzea. Gure nahia da 23eko Tourra Bizkaian hastea 2022an. Bizkaia horiz tindatu nahi dugu, eta ahalik eta udalerrri gehienak aktiboki inplikatu nahi ditugu, bereziki lasterketan ibiliko diren herri handi eta txiki horietan bizi diren pertsonak. Elkarrekin ospatu nahi dugu Tourreko festa. Tourra aliatu ezin hobea izango da Bizi estrategia indartzeko. Christian Prudhomme zuzendariak badaki zer egin nahi dugun, gure proiektuak azaldu dizkiogu eta bidea eta urratsak partekatzen ditu, eta baldintza bakar batekin lagundu digu: gure txikiak asko zaintzea, bizikletarekiko eta txirrindularitzarekiko maitasuna kutsatzea, eta 2023ko hasiera handi horretan zeregin garrantzitsua izatea. Goazen. Eta elkarrekin egingo dugu, Tourrarekin, udalekin eta gertakari historiko honen parte izan nahi duten pertsona guztiekin.

Beste gertaera historiko bat Guggenheim Gernika museo berria izango da, zalantza barik. Goazen aurrera proiektu hau gauzatu nahian. Zalantza barik. Aurrera! Ona delako edozelan aztertuta ere. Ona da Gernikarentzat eta Urdaibaiko, Bizkaiko eta Euskadiko gainerako udalerrientzat. Ona da biosfera-erreserbaren babesa indartzeko. Ona da kulturarentzat. Ona da Guggenheim Bilbao Museoarentzat berarentzat, gure nazioarteko enbaxadore handiarentzat. Ona da ekonomiarentzat eta enpleguarentzat. Espainiako Gobernuak berak, Trantsizio Ekologikoaren eta Kulturaren ministerioen bidez, proiektu ona eta oso interesgarria dela uste du, eta ekonomikoki laguntzeko prest dagoela adierazi digu. Beraz, guztiontzat ona dena egin behar da. Garai berriko lehen museoa izan daiteke, ingurumena, kultura eta jarduera ekonomikoa batzen dituen proiektu desberdina, eredu bihur daitekeena. Bitxi bat, altxor bat, Gernika eta Urdaibairen neurrikoa.

Ez dezagun inoiz gal ikuspegi eta eskuzabaltasun hau: herriak eta eskualdeak hobek izatea Bizkaia hobek izatea da. Udalerrien bizi-kalitatea igotzea Bizkaiko bizi-maila igotzea da. Aldundi hurbila gara eta are hurbilago izateko lan egiten dugu. Zerbitzu bokazio horretan, Gerturen lau bulego pilotuak adibide eta eredu dira. Gertu bulegoek Aldundia etxeko atera eramaten dute.

Badakigu gizarteak digitalizazioa eskatzen duena, baina badakigu, halaber, zati handi batek, belaunaldi batzuek bereziki, presentzia fisikoa, hurbiltasuna, aurrez aurreko arreta, pertsonak dituzten pertsonak baloratzen dituen. Hurrengo bi urteetan, Gertu bulego berriak irekiko ditugu Mungian, Igorren eta Markinan. Mungiak 264 metro koadroko bulegoa izango du Erribide kalean, 50.000 euro inguruko inbertsioa eginda. Igorre izango da Gerturen Arratiako zentroa. 148 metro koadroko bulegoa izango du Lehendakari Agirre kalean, eta horrek 160.000 euroko inbertsioa



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia*  
*El Diputado General de Bizkaia*

ekarriko du. Markina Lea Artibaiko Gertu zentroa izango da, eta bulegoa hartuko duen lokala erosteko hainbat aukera lantzen ari gara.

Egokitzea tokatzen da; egokitzea tokatzen zaigu. Gehiago eta hobeto iritsi behar da. Aurten, 1,3 milioi kontsulta eta izapide egin ditugu foru-kanalen bidez. Dagoeneko 450 izapide baino gehiago egin ditugu bitarteko digitalen eta gure egoitza elektronikoaren bidez. Gaur egungo errealitateak gure arreta-eredua garatzen jarraitzea behartzen gaitu, eta datozen egunetan bideo-deia komunikazio-kanal berri gisa sartuko dugu.

Proiektu asko errepasatu ditugu, baina bat geratzen zaigu, agian garrantzitsuena, administrazio baten proiektu nagusia: eguneroko kudeaketa, egunero pertsiana altxatzeko eta Bizkaiak funtzionatzeko ardura. Metroak eta Bizkaibusak funtzionatzea, zahar-etxeek funtzionatzea, eguneko zentroek funtzionatzea, udalerriekiko lankidetzak funtzionatzea, enpresekiko hurbiltasunak funtzionatzea, larrialdi-zerbitzuek funtzionatzea...

Bizkaiak funtzionatzen du. Garrantzizko eta premiazkoari ekiteko dugun erantzukizunetik hasita: jarduera ekonomiko eta enplegua. Hain da garrantzitsua, ezen beti ona izaten baita errepikatzea: enplegua da gizarte-politikarik onena, gazte-politikarik onena, etxebizitza-politikarik onena, berdintasun-politikarik onena. Enpleguak edozein ate irekitzen du, edozein amets, horrexegatik bultzatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak enplegua sortzea.

Lehenik eta behin, esparru politiko eta sozial egokia sortuz, lurraldeari eta bertako enpresei egonkortasun politiko eta fiskala emanaz. Lasaitasuna eta seriotasuna eskainiz, zarata eta zalaparta barik. Bigarrenik, enpresa-ehunetik oso gertu egonez. Bazkideak garelako. Beren arazoak eta beharrianak ulertuz eta arazo eta beharrian kolektiboak uler ditzaten saiatuz. Enpresei ondo badoakie, Bizkaia ondo doakio, eta alderantziz. Eta, hirugarrena, enplegu-politika eta -plan bereziak aktibatuz. Enplegu duina eta egonkorra. Foru Aldundiak enpleguaren alde egin duen apustu irmoaren fruituekin bat nator: 3.293 enplegu sortu dira abian dauden programei esker, horietatik 919 mugagabeak. Gazteengan, emakumeengan eta 45 urte baino gehiago dituztenengan arreta eta ahalegin berezia jarritz, eta gainerakoez ahaztu gabe, noski. Enplegu gehiago eta hobe sortzen laguntzeko asmo handiko plan berri bat abiaraziz: sei erronka handi, 18 helburu eta 58 ekimen zehatz. Enplegua, enplegua eta enplegua.

Konpromisorik gorena jarduera ekonomikoarekin ere. Datu ekonomikoak onak dira. BPGren hazkundea esanguratsua da. Industriak eta zerbitzu aurreratuek lehiakortasuna, produktibitatea eta enplegua handiagotzen dituzte. Esportazioak % 31,7 igo dira. Datu onak, bai, baina suspertzeak aurreikuspen onak baino zerbait gehiago eskatzen du. Mugimendua eskatzen du. Adibidez, gure ahalmen fiskalaren erabilera zehatza eskatzen du. Diru-bilketa 2019ko mailara iristen ari da une honetan. Ohartarazi genuen ez zela egokia erreforma handiak egitea osasun- eta ekonomia-krisi larriko egoera batean. Hala ere, susperraldia sustatzen, iraunkorra eta jasangarria egiten laguntzen duten gauzetan jardun behar da.

Bizkaiko Foru Aldundiak hartutakoak bezalako neurriak, Ekonomia Suspertzeko Foru Araua, atzo Gobernu Kontseiluan onartu genuena eta Batzar Nagusi hauek aurten bertan onartuko dutena, ziur



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

nago. Neurri fiskal berriak Bizkaia erreferentziazko zentro gisa kokatzeko, ekintzailtza garatzeko eta enpresak sortzeko, enpleguari eta jarduera ekonomikoari laguntzeko, zilar-ekonomiaren aldeko apustua indartzeko eta talentua erakartzeko. Laburbilduz, gure ekonomia hurrera dadin gure inguruko herrialdeen abangoardiaren aldera. Bide batez, G7ak enpresa handiei % 15eko gutxieneko zerga ezartzeko hartutako nazioarteko akordioak legez aplikatzekoak dira hemen 2014tik.

Mugitu beharra dago atzean ez geratzeko. Mugimendu horrek, hobekuntza horrek, berriz ere herrialde aurreratuenen artean kokatzen gaitu, eta aktiboki laguntzen du nahi den susperraldi ekonomikoan. Gauzak ez dira berez gertatzen, gertatzen lagundu behar zaie. Eta susperraldia ere ez da bakarrik iritsiko. Susperraldiak guztion ekimena, laguntza eta ausardia eskatzen ditu. Baita gobernuena ere. Eta horren guztiaren ondorioz, ezin aproposago datorkigu Bizkaiko Foru Aldundiak suspertzearen inguruan atondutako Foru Araua.

Arin eta ondo mugitu gara, era berean, gure gaitasun fiskala eta Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzea lotzeko. University College London (UCL) unibertsitatearekin eta Mariana Mazzucato irakaslearekin lankidetzan, gogoeta- eta definizio-prozesu bizia egin dugu, beste zerga-administrazio batzuetara transferi daitekeen eredu bat zehaztearren. Lanaren fase garrantzitsu bat zehaztuta daukagu, zerga-kontzeptuetako helburuen baremazioa. Emaitzak beste euskal ogasunekin partekatu dira Zerga Koordinaziorako Organoan. Politika fiskalean eta euskal zerga-sistemetan aldaketa kualitatiboa bultzatuko duen baliabide gisa aztertu eta sartu ahalko dira.

Politika eta autogobernu fiskalaren gainean berbetan gabiltzala, inoiz ez dago soberan gauzak argi uztea. Jarraitzen dugu geure Itun Ekonomikoari buruzko nahasmenduak entzuten. Larraun ibaia bezala, noizean behin pribilegioen aipamen faltsu hori berragertzen da. Pandemia horrek argi eta garbi jarri du agerian Itun Ekonomikoa, eta hain muturreko egoera honetan ere berretsi du haren balioa. Baita ezaugarri nagusia ere: euskal erakundeok geure gain hartzen dugun aldebakarreko arriskua. Bilketak behera egiten duenean, Bizkaian 2020koa % 11 jaitsi den bezala, geure kontura konpondu behar, geure defizit- eta zor-ahalmenera joz. Inor ez dator guri laguntzera edo erreskatatzera. Euskal erakundeen, Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien jardun onaren mende baino ez gaude.

Hain nabarmena izan da, ezin Estatuak berak ere onartu behar izan baitu. Gure berezitasunaren aitortpen esplizitu eta idatzi batean, eta erantsiko nuke historikoki eta balio politiko oso handikoa izan dela foru-aldundien egitate diferentziala eta gaitasunak onartu izana. Eta hortxe dago, hain zuzen 2020ko otsaileko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan idatzita, haizeak inoiz eraman ez dezan. Funtsezko lorpena da, harro egoteko eta geurea, autogobernua, defendatzeko arrazoa. Arrakasta horretan oinarri-oinarrizkoa izan da Bizkaiko Foru Aldundia. Hori berori da-eta herrialdea eta lurraldea benetan egitea, eraikitzea.

Urte bizi hau, zerga-arloan, beste konpromiso beteta amaitu da. Izan ere, ekarpenen lege berria adostu dugu, Bizkaia eta gainerako euskal erakundeek politika publikoei eusteko behar dituzten baliabideak izan ditzaten.



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

Fiskalitatearen adarretan barrena joan naiz, baina jarduera ekonomikoa sustatzeko neurriak aipatu nahi nituen. Hainbat neurrik, berbarako 2020ko martxoaz geroztik onartutako hamabost dekretu arauemaileek, 650 milioi euroko likidezia sartu diote Bizkaiko ekonomiari pandemia betean, behar-beharrezkoak zirenean. Eta beste 66 milioi zerga-onuretan. PFEZaren eta BEZaren itzulketa bizkortu dugu, pertsonak, familiek, autonomoek eta enpresa txiki eta ertainek dirua lehenbailehen izan zezaten. 11,2 milioi inbertitu ditugu 806 enpresari emandako maileguetan, 14.000 euroko batez besteko zenbatekoarekin. Urrezko datu bat zehaztu nahi dut: enpresa horien % 63k ez zuen beste finantziario-iturririk. Hau da, enpresa horien guztien salbamendu bakarra izan gara. Gure ekonomiari lagundu diogu bizirauten. Seed Capitalek 89,4 milioi eman dizkie maileguetan enpresa txiki eta ertainei. Bi milioi bideratu ditugu turismo-bonoetarako, eta beste milioi luze bat turismo-sektorerako zuzeneko laguntzetarako. Lehen sektorerako ere laguntza zuzenak, abeltzain eta nekazarientzat. Denda Bonuen kanpainak bultzatu ditugu tokiko merkataritzarako. Hiru eta hamar pertsona bitarteko 300 enpresak jaso dituzte merkataritza suspertzeko laguntzak. 25 milioi euro bideratu ditugu 17 laguntza-programa, 21 zerbitzu eta gure industria-sarerako berariazko bost funts finantzatzeko. Inbertsio produktiboaren iturria zabalik mantendu dugu: 104 milioi foru errepideetan 24 jarduera egiteko eta beste ia 70 milioi bideak ez diren azpiegituretan. 2020ko 104 kontratutan 1.243 klausula sozial sartu ditugu, eta 2021ean jada 858 klausula daramatzagu 63 kontratutan.

Oinak lurrean jarri ditugu, gure eskualdeetan. Sarean lan egiten dugu eskualdeko eragileekin "Bizkaia Orekan" programaren barruan: 67 proiektu bultzatu eta 2,4 milioiko inbertsioa egin dugu. Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean ari gara Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterrirako plan berezian. Ibilbide luzeko plan horrek apustu zintzoa egin du bi eskualdeetan, eta 211 milioi euroko inbertsioak aurreikusi ditu Ezkerraldean 2021 eta 2023 bitartean, eta 65 milioi Enkarterrin denboratarte berean. Eskualdearekiko konpromisoa sendotu dugu Zallako Elkartegi berriarekin, inbertsio-plan bereziaren proiektuetako batekin, alegia. Plan horretan tokiko eta eskualdeko kirol-azpiegiturek hobetzeko dirulaguntzen dekretu bat ere jasotzen da. Pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko hamar milioi euro eta erantzun izugarria: udalek egindako 71 eskaera, ia 19 milioi euro. Ezohiko inbertsio horien barruan, Zeanuriko Zulaibar Lanbide Ikastegian berrikuntzaren eta ekintzailtzaren aldeko apustua egitea, Arteako Ekomuseoa berritzea Arratiako kultura-traktore gisa edo Bilboko Udalarekin batera lan egitea Zorrotzako Muturrean ikus-entzunezkoen industrien eta sormenekoaren hub bat sortzeko, hamar milioi euroko inbertsioarekin.

Azken gaia ere garrantzitsua da. Garrantzi handi-handikoa. Iraunkortasuna. Gure ekarpena planeta kolpatu hau zaintzeko. Zerbait egin dezake gu bezain txikia den norbaitek? Bai. Egin ahal dugu eta egin behar dugu. Eta egiten dugu. Gure ekarpenaren urrats txiki edo handiak, urrats sendoak, hala ere. Lehenengoa, gure naturgunea eta hondartzak zaintzea, aldi berean erabiltzaileen oso asebetetze-maila altua mantenduz, baita mendiak jagotea ere, zelan ez. Bizkaiaren % 60 basoa da, baina apurka-apurka baso autoktonoa izatea gura dugu. Lau milioi euro inbertituko ditugu mendiak erosi eta birpopulatzeko, hamabost kokaleku baino gehiago aukeratuta. Analisi-fasean dauden kokalekuak, zenbait baldintza bete ditzaten: hedadura handiak izatea eta



beste azalera publiko batzuekin korrelazioa izatea baso autoktonoen arteko igarobideak egiteko. Hemendik gutxira, aldaketa garrantzitsu bat ere ekarriko dugu Batzar hauetara: mendiei buruzko Foru Arauan xedapen gehigarri bat jasoko dugu, eukalipto landaketa berrietan luzamendu bat ezartzeko. Landaketa berriak aldi baterako debekatzea, lantzen ari den foru-arau berrian haien behin betiko antolamendua egin arte.

Ingurunea zaintzea eta hartaz gozatzea, modu osasungarrian. Hori da ibilbide eta bide berdeetarako 15 milioi euroko inbertsioaren helburua. Bermeo eta Matxitxako eta San Juan eta Bakio konektatzeko bideetan eta lehen aipatutako Lezamako Trenbide Zaharreko Bidean, Txorierrikoan, ez ezik, Mungialdeko, Uribe Kostako eta Arratiako bide naturaletan ere lanean dihardugu. Bide naturalak, oinez zein bizikletan ibiltzeko, gozatzeko eta natura errespetatzeko.

Natura ere zaintzen baitugu gutxiago kutsatuz. Ekintzak eta lana gehitu dizkiogu gutxiago kutsatzeko borondateari, nahiari. Adibidez, energia berriztagarriaren % 100 erabiliz gure eraikin eta egoitza guztietan. Bizkaibuserako autobus hibridoak jarritz. Dagoeneko 47 unitate hibrido ditugu, gutxiago kutsatzen dutenak. 2021ean erosi genituen 19 autobusetatik 14 hibridoak dira. Teknologia oraindik ez da behar bezain heldua gure ibilbideen eta orografiaren beharrezanetarako. Gauza bera egin dugu Garbikerren flotarekin, orain gas natural konprimituko ibilgailuak erabiltzen baititu.

Gauza gehiago berdez hornituak: Bizkaiko Fiskalitate Iraunkorra. Iraunkortasuneko eta ingurumen-hobekuntzako proiektuak gauzatzen dituzten enpresek onura fiskalaren pizgarria dute. 2012-2020 aldian, 525 enpresa-proiektuak lortu dute Ingurumen Egokitasunaren Ziurtagiria, ia 500 milioi euroko inbertsioa eta guzti. Horren ondorioz sortzen diren ingurumen-hobekuntzak nabarmenak dira: 645.200 MW-ko energia aurreztean, 192.000 tona CO<sub>2</sub> isurtzea saihestuta, eta 2.300 tona hondakin murriztea. Enpresek denbora horretan zehar kendutako zenbatekoa 75 milioi euro ingurukoa da, batez ere industriakoa eta garraiakoa.

Gako berdearen barruan, badugu hiri-hondakinen kudeaketa ere. Belarri-tiraldi kolektibo txiki bat: aurreko urtean baino % 4 hondakin gutxiago sortu ditugun arren, gure birziklatze-tasa % 6 jaitsi da, kartoian eta beiran batez ere. Agian pandemiak lagundu du datu horietan; hala ere, joera hori irauli eta zifra positiboetara itzuli behar da. Espero dut Bizkaiko toki-eskumeneko hondakinak kudeatzeko hirugarren plan integralak lagunduko digula. Udallerri eta mankomunitateekin kontrastatzen ari den plana, lau zutabetan oinarritua: hondakin gutxiago sortzea, berrerabilpena sustatzea, birziklapena maximizatzea eta zero isurketa gordinera jotzea. Bide batez, urte honen amaieran hiru konpostaje planta txiki izango dira martxan Getxon, Berriatuan eta Igorren.

Ikuspegi orokorra, tokiko jarduketa. Esan bezala, egin ahal dugulako eta egin behar dugulako. Planeta zaintzeko egiten dugun guztia ongi etorria da, eta zeregin horretan denok gara ezinbestekoak. Bakoitzarengandik hasita, maila pertsonalean eman ditzakegun urrats txikietatik.



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

Hauxe da gure selfia. Hauxe gara eta hauxe egiten dugu. Izan ere, gure egitekoa da ekonomia mugitzea, gauzak gertatzea, mugimenduak jarraitzea, Bizkaiak aurrera egitea. Gure egitekoa ez da hilerriko aberatsena izatea, esamoldea baliagarria bada. Diruak zirkulatu behar du jarduera eta enplegua sor ditzan. Jarduerak eta enpleguak bizi-kalitatea sortzen dutelako. Horretan aritu gara Bizkaiko Foru Aldundian: ahaleginak egiten lurraldeari ezer falta ez dakion, pandemiaren biharamunean pentsatzen eta planeatzen, susperraldiaren olatua har dezagun, bai ala bai.

Jakin-mina dut beste selfi batzuk ikusteko, beste batzuek zer egin duten ikusteko, zer ekarri duten, nora egin duten arraun, zelan jokatu duten muturreko egoera honetan, zelan zerbitzatu duten beren gizartea. Jakin-mina besterik ez da, egia esan. Izan ere, besteek egiten dutena edo egiteari uzten diotena baino gehiago, guk egiten duguna axola zait. Axola zait berba betetzen jarraitzea, esaten duguna egiten jarraitzea.

Gaur betetako zenbait berba zerrendatu ditut. Lehenengoa, eguneroko kudeaketa lasaia eta serioa, foru taldeko pertsona guztien lana. Dagoeneko uki daitezkeen errealitate fisikoak erreparatu ditut: azken belaunaldiko banda zabala Bizkaiko azken txokoraino iritsiko dena, Eskola 42 eta Urduliz dorrea, Eup!, Bizkaiko merkataritzaren atari komuna, Omako baso margotua, Bizi estrategia, Nagusi Intelligence Center, sare adimendunen zentroa eta Energy Intelligence Center.

Nire ardura da lurralde honi proiektuak eta ilusioa eskaintzen jarraitzea. Horrexek baino ez nau kezkatzen. Horrela egiten jarraitzen dugu. Hortxe daude adibide zehatzak. Proiektu eta konpromiso horiek ere errealitate izango dira: Avanzada estaltzea, Frantziako Tourra Bizkaian, Guggenheim Gernika Museoa, iraupen luzeko zaintza-plana, bidegorriak eta bide naturalak edo bide berdeak, Sollube hobetzea.

Bizkaiak egiten jarraitzen du. Bizkaiak martxan jarraitzen du. Bizkaiak hobetzen jarraitzen du. Bizkaia proiektuz betetako proiektua delako. Guztiok batzen gaituen proiektua da.

Unai Rementeria Maiz  
Bizkaiko Ahaldu Nagusia





*Bizkaiko Ahaldu Nagusia  
El Diputado General de Bizkaia*

## **Discurso del Diputado General de Bizkaia en el pleno de Política General**

(Gernika, 29 de septiembre de 2021)

Constatar que estamos mejor que hace un año es una buena forma de empezar. Ojalá el año próximo digamos aquí que estamos todavía mejor. Acabamos de doblar el ecuador de esta legislatura, que será recordada como la legislatura de la pandemia del Covid-19, sobre todo por su tremendo impacto en vidas, por el vuelco que dio a la vida, a nuestras vidas, por cómo tensionó al límite la sociedad, por cómo nos llenó de incertidumbre, por el frenazo en seco a una economía que volaba. Recordaremos todo eso.

Todo eso que recordaremos ha sido nuestro trabajo, nuestra labor durante este último año y medio: gestionar esa situación, gestionar la pandemia. Creo que merece dedicar unos segundos a ser conscientes de la fuerza de las palabras: hemos gestionado una pandemia, una catástrofe. Hemos gestionado lo nunca visto, lo nunca vivido, lo nunca sufrido. Una catástrofe que, como casi todas, venía sin manual de instrucciones. La Diputación Foral de Bizkaia ha hecho su trabajo, con aciertos y errores, tomando decisiones, respondiendo con urgencia a la urgencia, muy cerca de quien más lo ha necesitado. Para nosotros eso ha sido la pandemia: mucho trabajo callado, mucha cercanía, mucha incertidumbre y mucho sufrimiento.

Creo que las catástrofes no se deben utilizar en ningún sentido. Así que, personalmente, aquí dejo este tema. Además, y sobre todo en estos casos, siempre es preferible que los demás hablen de uno antes que uno hable de sí mismo. Por eso cito dos opiniones y un dato sobre el trabajo de la Diputación Foral de Bizkaia durante esta pandemia todavía vigente. Ambas opiniones son muy válidas por venir de donde vienen. La primera, y para mí muy valiosa, la opinión de nuestros mayores y sus familias, la opinión de quienes viven día a día en nuestras residencias, de quienes han pasado el Covid-19 ahí dentro, quienes más elementos de juicio tienen y quienes más han sufrido. Nuestros mayores y sus familias califican con un 8,06 sobre 10 el servicio ofrecido por las residencias de esta Diputación Foral de Bizkaia. E incluye, sí, la pandemia. Respecto a la gestión del Covid-19 en las residencias, otorgan un 7,18 sobre 10.

